

## **23/2023 FORU ARAUA, ABENDUAREN 15EKOA, FORTUNA HANDIEN GAINEKO ALDI BATERAKO ELKARTASUN ZERGA ARAUTZEN DUENA**

**(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa)**

Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen du fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga, ondarearen gaineko zergaren osagarria, araudi autonomoko tributu itundua dela, eta Ekonomia Itunaren 24. artikuluan ezarritako modu berean eskatuko dela, hau da, aipatutako ondarearen gaineko zergarako ezarritako modu berean.

Foru arau honen helburua da fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga arautzea.

Foru arau honek 38 artikulua, zergaren oinarriko elementuak arautzen dituztenak, lau xedapen gehigarri eta bi azken xedapen ditu.

Foru arau hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga arautzeko beharrezkoa den araua da. Proporzionaltasun printzipioaren arabera, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta efizientziaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurrean jartzearen bidez.

### **1. artikulua. Zergaren izaera eta xedea**

Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga zuzeneko tributu bat da, izaera pertsonalekoa, ondarearen gaineko zergaren osagarria dena eta zergadunen 3.000.000 eurotik gorako ondare garbia zergapetzen duena, foru arau honetan jasotako baldintzetan.

Zerga honen ondorioetarako, zergadunaren ondare garbia haren titulartasunpean dauden ondasun eta eskubide ekonomiko guztiek eratuko dute, ondasun eta eskubide horien balioa murrizten duten zamak eta kargak gutxituta eta zergadunak bere gain dituen zorrak eta obligazio pertsonalak kenduta.

### **2. artikulua. Aplikazio eremua**

**Bat.** Foru arau honetan xedatutakoa honako zergadun hauei aplikatuko zaie:

a) Betebehar pertsonalagatik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaindu behar duten pertsona fisikoei, baldin eta Arabako Foru Aldundiari badagokio zerga hori ordainaraztea; ondare garbi osoagatik eskatuko zaie zerga, zergapeko ondare elementuak dauden lurraldea edozein dela ere.

b) Betebehar errealtatik, Espainiako lurraldean bizi ez diren eta Espainiako lurraldean dauden ondasun eta eskubideen titularrak diren pertsona fisikoei, baldin eta, ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean egonik, Arabako Lurralde Historikoan daudenen balioa beste lurralde historikoetako bakoitzean daudenen balioa baino handiagoa bada.

Hain zuzen, b) letran ezarritakoaren ondorioetarako, lurralde batean dauden ondasunak eta eskubideak, bertan erabili ahal direnak eta bertan bete behar direnak lurralde horretan kokatutzat joko dira.

Era berean, b) letra horren ondorioetarako, Espainiako lurraldean dauden ondasun edo eskubideengatik soilik eskatuko zaio zerga zergadunari, Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 11. artikulua Lau apartatua xedatutakoa kontuan hartuta.

c) Espainiako lurraldeko egoiliar ez izan arren azken egoitza Araban eduki duten pertsona fisikoei, baldin eta zerga Araban ordaintzeahautatzen badute betebehar pertsonaltatik. Aukera hori baliatzeko, zerga honen autolikidazioa aurkeztu beharko dute Araban egoiliar izateari utzi dioten lehenengo zergaldian.

d) Espainiako Estatuak atzerrian dituen ordezkari eta funtzionarioei, eta atzerriko estatuek eta erakundeek Espainian dituztenei. Haiek zerga honi lotuta geratuko dira betebehar pertsonal edo errealtatik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian zergadun horientzat xedatutakoaren arabera.

**Bi.** Ohiko bizilekua zehazteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian xedatutakoa beteko da.

**Hiru.** Era berean, foru arau hau aplikagarri izango zaio testamendu ahalorde bat edo gozamen ahalorde bat erabili gabe duten jaraunspenen ondare garbiari, betiere foru arau honek bigarren xedapen gehigarrian jasotako berezitasunei jarraikiz.

### **3. artikulua. Nazioarteko itunak eta hitzarmenak**

Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragozten Espainiako barne ordenamenduaren osagai diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

### **4. artikulua. Zerga egitatea**

**Bat.** Zergaren sortzapenaren unean, zergaduna foru arau honen 1. artikuluan aipatzen den ondare garbiaren titular izateak eratzen du zerga egitatea, ondare hori 3.000.000 eurotik gorakoa denean.

**Bi.** Aurreko sortzapenaren unean zergadunaren jabetzakoak izandako ondasun eta eskubideak haren ondarearen parte direla joko da, salbu eta ondare eta eskubide horiek eskualdatu direla edo ondare galera gertatu dela frogatzen bada.

### **5. artikulua. Ondasun eta eskubide salbuetsiak**

Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren arabera ondarearen gaineko zergatik salbuetsita dauden ondasun eta eskubideak salbuetsita egongo dira zerga honetatik.

## **6. artikulua. Zergadunak**

**Bat.** Zerga honen zergadunak dira foru arau honen 2. artikuluaen Bat apartatuan aipatzen diren pertsona fisikoak.

**Bi.** Zerga honen zergaduntzat hartuko dira, halaber, foru arau honen 2. artikuluaen Hiru apartatuan eta bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren jaraunspenak, testamentu ahalordea egikaritzearen edo gozamen ahalordua egikaritzearen zain daudenak.

## **7. artikulua. Espainian egoiliar ez diren zergadunen ordezkariak**

Zerga honen zergadunak ez badira egoiliar Europar Batasuneko beste estatu kide batean, zerga autolikidatzeko epea amaitu baino lehen, behartuta daude egoitza Espainian duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzera, zerga honekiko betebeharretan haien ordezkari jardun dezan Zerga Administrazioaren aurrean.

Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten eta Europar Batasuneko estatu kide ez diren estatuen kasuan, aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko zerga informazioaren trukeari eta dirubilletari buruzko elkarrekiko laguntzaren gaineko araudia dagoenean, betiere Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritako moduan.

Betebehar hori bera zergadun egoiliarrek ere izango dute baldin eta, zerga egitatea behin gertatuta eta autolikidazioa aurkeztu baino lehen, Espainia uzten badute Europar Batasunetik kanpoko hirugarren estatu batera joateko edo, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, zerga arloko informazio trukean edo dirubilletan elkarri laguntzeko araudia onartua duen Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko hirugarren herrialde batera joateko. Betebehar horretatik libratuko dira autolikidazio hori aurkezteko epea amaitu baino lehen itzultzen badira.

Ordezkariaren izendapena Zerga Administrazioari komunikatzean, ordezkariaren esanbidezko onepena erantsiko zaio.

## **8. artikulua. Ondare elementuen titulartasuna**

Ondasunak eta eskubideak honela eratzikiko zaizkie zergadunei: titulartasun juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauarekin bat etorritik eta zergadunek aurkeztutako frogak eta Administrazioak aurkitutakoak kontuan hartuta. Horri dagokionez, Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan ondare elementuen titulartasunari eta prezio geroratuarekin edo jabari erreserbarekin eskuratutako ondasun edo eskubideei buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

## **9. artikulua. Zerga oinarria**

**Bat.** Zerga honen zerga oinarria zergadunaren ondare garbiaren balioa da.

**Bi.** Ondare garbia honako bi hauen arteko aldeak zehaztuko du:

a) Zergadunaren titulartasuneko ondasunen eta eskubideen balioa, hurrengo artikuluetako erregelaren arabera zehaztuta, eta

b) Izaera errealeko kargak eta zamak, ondasun edo eskubideen balioa eta zergadunak erantzun beharreko zor edo betebehar pertsonalak murrizten dituztenean.

**Hiru.** Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, salbuetsitako ondasunei dagozkien kargak eta zamak ez dira kenduko ondare garbia zehazteko.

**Lau.** Zergak ordaintzeko betebeharrak errealaren kasuetan, Espainiako lurraldean dauden edo lurralde horretan egikaritu daitezkeen edo bete behar diren ondasun eta eskubideei eragiten dieten kargak eta zamak bakarrik izango dira kengarriak, bai eta zerga honi lotuta dauden ondasun eta eskubideetan inbertitutako kapitalen ondoriozko zorrak ere.

## **10. artikulua. Ondasun higiezinak**

**Bat.** Hiri edo landa ondasun higiezinak katastro balioaren arabera zenbatuko dira.

Zerga sortzen denean ondasun higiezin batek ez badauka katastro balioa ezarrita, edo atzerrian badago, haren eskuraketa balioaren arabera zenbatuko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 45. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratu ondoren.

**Bi.** Eraikitzen ari diren ondasun higiezinaren balioa kalkulatzeko ondoko kopuruak hartu behar dira kontuan: zerga sortu arte eraikuntzan benetan inbertitutako kopuruak eta orubearen balioa, artikulua honetan ezarritakoaren arabera. Jabetza horizontalaren kasuan, orubearen balioari dagokion zati proportzionala tituluan finkatutako ehunekoaren arabera kalkulatu da.

**Hiru.** Multijabetza kontratuen, denbora partzialeko jabetzaren edo antzeko formulen bidez eskuratutako ondasun higiezinaren gaineko eskubideak honako arau hauen arabera baloratuko dira:

a) Higiezinaren titulartasun partziala badira, aurreko Bat apartatuko arauen arabera.

b) Higiezinaren titulartasun partziala ez badira, ziurtagiriak edo haiek ordezkatzeko dituzten beste titulu batzukeskuratzeko prezioaren arabera.

Turismo ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltzeko kontratuei eta truke kontratuei eta zerga arauari buruzko uztailaren 6ko 4/2012 Legean jasotako eskubideak, edozein motatakoak direla ere, eskuratzeko prezioaren arabera baloratuko dira.

## **11. artikulua. Jarduera ekonomikoak**

Jarduera ekonomikoari lotutako pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak kontabilitateki ateratzen den balioaren arabera zenbatuko dira, aktiboaren eta pasiboaren arteko diferentziaren arabera, betiere hura Merkataritza Kodean xedatutakoari egokitzen bazaio, salbu ondasun higieziari, ibilgailuei, ontziei eta aireontziei dagokienez, zeinak betiere foru arau honen 10. eta 18. artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoaren ondoriozko balioan zenbatuko baitira, kontabilitate balioa aipatutako manuak aplikatuz ateratzen dena baino handiagoa denean izan ezik.

Ondasunak jarduera ekonomikoari atxikita daudela ulertuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauen arabera. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 27. artikulua 5. eta 6. arauetan aipatutako aktiboak atxikitzen joko dira haien gastuak arau horien arabera kengarritzat jo daitezkeen proportzio berean.

Kontabilitaterik ezean, edo kontabilitatea ez badator bat Merkataritza Kodean xedatutakoarekin, zerga honi buruzko gainerako arauak aplikatuko dira balioak kalkulatzeko.

## **12. artikulua. Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak**

Kontu korronteko edo aurrezki kontuko gordailuak, agerikoak edo eperakoak, hirugarrenen konturakoak ez direnean, bai eta diruzaintzako kudeaketa kontuak eta finantza kontuak edo antzekoak ere, zergaren sortzapen datan duten saldoaren arabera zenbatuko dira, salbu eta saldo hori urteko azken hiru hilekoari dagokion batez besteko saldoa baino txikiagoa denean; kasu horretan, azken hori aplikatuko da.

Batez besteko saldo hori kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko zergadunaren ondarean agertzen diren ondasunak eta eskubideak eskuratzeko kendutako funtsak, ez bere ondarean agertzen diren beste kontu batzuetara lekualdatzeko kendutakoak, ez eta zorrak kitatzeko edo murrizteko kendutakoak ere.

Mailegu edo kreditu batek sortutako zor baten zenbatekoa urteko azken hiru hilekoan aurreko lehenengo paragrafoan adierazitako konturen batean sartu denean, ez da kontuan hartuko batez besteko saldoa zehazteko, ez eta zor bezala kenduko ere.

## **13. artikulua. Merkatu antolatuetan negoziatutako kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak**

Merkatu antolatuetan negoziatutako kapital propioak hirugarrenei lagatzearen balore adierazgarriak urte bakoitzeko laugarren hiru hilekoko batez besteko negoziazio balioaren arabera zenbatuko dira, edozein izanik ere haien izendapena, adierazpena eta lortutako etekinen izaera.

## **14. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten gainerako baloreak**

Aurreko artikuluan aipatutakoez bestelako kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak beren balio nominalean baloratuko dira, amortizazio edo itzulketa primak barne, edozein dela ere haien izendapena, adierazpena eta lortutako etekinen izaera.

## **15. artikulua. Edozein erakunde motaren funts propioetako partaidetzaren balore adierazgarriak, merkatu antolatuetan negoziatuak**

**Bat.** Merkatu antolatuetan negoziatutako edozein erakunde juridikoren kapital sozialeko edo funts propioetako akzioak eta partaidetzak, inbertsio kolektiboko erakundeei dagozkienak izan ezik, urte bakoitzeko laugarren hiru hilekoko batez besteko negoziazio balioaren arabera zenbatuko dira.

**Bi.** Antolatutako merkatuetan kotizatzen duten erakunde juridikoek jaulkitako eta oraindik kotizazio ofizialerako onartu gabeko akzio edo partaidetza berrien harpidetzaren kasuan, harpidetzako epealdiaren barruan titulu zaharrekin egindako azken negoziazioko balioa hartuko da akzio edo partaidetza horien baliotzat.

**Hiru.** Ordaintzeko dauden kapital zabalkuntzei dagokienez, akzioak edo partaidetzak baloratzeko aurreko arauak aplikatuko dira, erabat ordainduta baleude bezala, ordaintzeko dagoen zatia zergadunaren zor moduan sarturik.

## **16. artikulua. Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza adierazten duten gainerako baloreak**

**Bat.** Aurreko artikuluan aipatutakoez bestelako akzio eta partaidetzen kasuan, haien balorazioa onetsitako azken balantzetik ateratako balio teorikoaren arabera egingo da, baldin eta balantze hori, nahitaez edo borondatez, berrikusi eta egiaztatu bada eta auditoretza txostena aldekoa bada.

Balantzeari auditoretzarik egin ez bazaio edo auditoreen txostena aldekoa ez bada, balorazioa ondorengo hiru hauetatik balio handiena duenaren arabera egingo da: balio nominala, onetsitako azken balantzearen balio teorikoa, edo zergaren sortzapen eguna baino lehen itxitako hiru ekitaldi sozialen mozkinen batez bestekoa ehuneko 20ko tasara kapitalizatetik ateratzen dena.

Horretarako, mozkin gisa zenbatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbarako kopuruak, baina bazter utziko dira balantzeak erregularizatzeko edo eguneratzeko erreserbetarako kopuruak.

**Bi.** Inbertsio Kolektiboko Erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzio eta partaidetzak zergaren sortzapen datan dagoen likidazio balioaren arabera zenbatuko dira, balantzean sartutako aktiboak baloratuz, legeria espezifikotan jasotzen diren arauen arabera, eta hirugarrenetik obligazioak kengarriak izango dira.

**Hiru.** Bazkideek edo elkartekideek kooperatiben kapital sozialean dituzten partaidetzen balorazioa zehazteko, kontuan hartuko da onetsitako azken balantzearen ondoriozko ekarpen sozial ordainduen zenbateko osoa (nahitaezkoak edo borondatezkoak), eta, hala badagokio, egotzitako eta konpentsatzeko dauden galera sozialak kenduko dira.

**Lau.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erakundeek bazkide, elkartekide edo partaideei ziurtagiriak eman beharko dizkiete, balorazio eta guzti.

## **17. artikulua. Bizi aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak**

**Bat.** Bizitza aseguruaren baliotzat, zerga sortzen denean haiek duten erreskate balioa hartuko da.

Hala ere, hartzaileak ez badauka ahalmenik zergaren sortzapen datan osorik erreskatatzeko eskubidea egikaritzeko, aseguruaren baliotzat data horretan hornidura matematikoak hartzailearen zerga oinarrian duen balioa hartuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru kontratuei heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku berme osagarriak bakarrik jasotzen badituzte.

**Bi.** Aldi baterako errentak edo biziarteko errentak, kapitala dirutan, ondasun higigarritan edo higiezinetan ematearen ondorioz sortu direnean, zerga sortzen den egunean duten kapitalizazio balioaren arabera zenbatu behar dira, pentsioakeratzeko ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan adierazi diren arau berak aplikatuz.

Hala ere, bizitza aseguru batetik aldi baterako nahiz biziarteko errentak jasotzen direnean, artikulu honen bat apartatuan ezarritako balioa hartuko da haien baliotzat.

## **18. artikulua. Bitxiak, luxuzko larruak eta ibilgailuak, ontziak eta aireontziak**

Bitxiak, luxuzko larruak, autoak, 125 zentimetro kubikoko edo gehiagoko zilindrada duten bi edo hiru gurpileko ibilgailuak, laketonziak edo itsas kiroletarako ontziak, belaontziak, hegazkinak, hegazkin txikiak eta gainerako aireontziak zergaren sortzapen datan merkatuan duten balioaren arabera zenbatuko dira.

Hori dela eta, zergadunek merkatuko balioa kalkulatzeko foru aldundiak ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarako onartutako ibilgailu erabiliak baloratzeko taulak erabil ditzakete, hain zuzen ere fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren sortzapen egunean indarrean daudenak.

## **19. artikulua. Artelanak eta antzinako gauzak**

**Bat.** Artelanak edo antzinako gauzak zergaren sortzapen datan duten merkatuko balioaren arabera zenbatuko dira.

**Bi.** Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 5. artikulua bat eta bost bitarteko apartatueta jasotzen den salbuespenari kalterik egin gabe, zeina foru arau honen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera aplikatu beharrekoa baita, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Artelanak: pinturak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, litografiak edo antzeko beste batzuk, betiere, kasu guztietan, jatorrizko obrak badira.

b) Antzinako gauzak: ehun urtetik gorako antzintasuna duten ondasun higigarriak, tresnak edo apaingarriak, artelanak izan ezik, baldin eta azken ehun urteetan egindako aldaketen edo konponketen ondorioz jatorrizko ezaugarri nagusiak aldatu ez badira.

## **20. artikulua. Eskubide errealak**

Gozamen eskubide errealak eta jabetza soila ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan adierazitako irizpideen arabera baloratuko dira, eta, hala badagokio, dagokion ondasunari esleitutako balioa hartuko da erreferentziatzat, foru arau honetan jasotako arauen arabera.

## **21. artikulua. Administrazio emakidak**

Jabari publikoko edo titulartasun publikoko zerbitzuak edo ondasunak ustiatzeko administrazio emakidak, iraupena edozein dela ere, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan adierazitako irizpideen arabera baloratuko dira.

## **22. artikulua. Jabetza intelektualaren edo industrialaren ondoriozko eskubideak**

Hirugarrenengandik eskuratutako jabetza intelektual eta industrialetik eratorritako eskubideak eskuratzailaren ondarean sartu beharko dira eskuratzeko balioan, foru arau honen 11. artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

### **23. artikulua. Kontratu aukerak**

Kontratu aukerak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauak ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

### **24. artikulua. Gainerako ondasun eta eskubide ekonomikoak**

Zergadunari egotz dakizkiokeen gainerako ondasun eta eskubide ekonomikoak zerga sortzen den egunean duten merkatuko prezioaren arabera baloratuko dira.

### **25. artikulua. Zorren balorazioa**

**Bat.** Zorrek zergaren sortzapen datan duten balio nominalaren arabera baloratuko dira, eta behar bezala justifikatuta badaude soilik izango dira kengarriak.

**Bi.** Ez dira kengarritzat hartuko:

a) Ondasun edo eskubide salbuetsiakeskuratzeko hartutako zorrak eta betebeharrak. Salbuespena partziala bada, zor eta betebeharren zati proportzionala kendu ahal izango da, bidezkoa izanez gero.

b) Abalatutako zenbatekoak, abal-emailea zorra ordaintzera behartuta egon arte, eskubidea zordun nagusiaren aurka egikaritu delako eta hura kobraezina delako. Betebeharra solidarioa bada, abalatutako kopuruak ezin izango dira kendu eskubidea abala jarri duenaren aurka baliatu arte.

c) Ondasun bat eskuratzean geroratutako prezioa ordainduko dela bermatzen duen hipoteka; hala ere, geroratutako prezioa edo bermatutako zorra ken daiteke.

**Hiru.** Ondasunak edo eskubideak eskuratzeko egindako zorren ondoriozko kenkaria inolaz ere ezin daiteke izan zerga honi buruzko arauetan ezarritakoaren arabera balorazioa baino gehiago.

### **26. artikulua. Zerga oinarria zehaztea**

Oro har, zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztuko da.

Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 52. artikuluan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, zerga oinarriak zehazteko zeharkako zenbatespenaren araubidea aplikatu ahal izango da.

### **27. artikulua. Peritu tasazioa**

Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 129. artikuluan aipatzen duen peritu tasazio kontrajarria foru arau honen 18., 19. eta 24. artikuluetan aipatutako ondasun eta eskubideei bakarrik aplikatuko zaie, foru arau honen 18. artikuluan bigarren paragrafoan ezarritakoa erabiltzen denean izan ezik.

### **28. artikulua. Likidazio oinarria**

Zerga oinarriari 800.000 euro kenduko zaizkio salbuetsitako gutxieneko gisa.

## 29. artikulua. Zergaren sortzapena

Zergaren sortzapena urte bakoitzeko abenduaren 31n gertatuko da, eta zergadunak data horretan bere titulartasunpean duen ondare garbiari eragingo dio.

## 30. artikulua. Kuota osoa

Zergaren likidazio oinarria ondorengo eskalan jasotako tasen arabera zergapetuko da:

Likidazio oinarria Gehienez (euroak)	Kuota osoa (euroak)	Likidazio oinarriaren gainerakoa Gehienez (euroak)	Aplikatu beharreko tasa (ehunekoak)
3.200.000	0	3.200.000	1,70
6.400.000	54.400	6.400.000	2,10
12.800.000	188.800	1.700.000	2,50
14.500.000	231.300	Hortik gora	3,50

## 31. artikulua. Kuota osoaren muga

**Bat.** Betebehar pertsonalagatik zergaren mende dauden zergadunen kasuan, zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoekin batera, ezingo da izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenari dagokionaren ehuneko 60 baino handiagoa.

Hori dela eta:

a) Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren kuota osoaren zati bat ez da kontuan hartuko, hain zuzen ere izaera edo destinoa dela eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak kargatzen dituen etekinak sortu ezin dituzten ondare elementuei dagokien zenbatekoa.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarriari batu behar zaio Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa.

Hiru zergen kuoten baturak goian ezarri den muga gainditzen badu, zerga honen kuota murriztu egingo da, harik eta ezarri den mugara ekarri arte, baina murrizketa ezin da inola ere ehuneko 80 baino handiagoa izan.

**Bi.** Familia unitateko kideek pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga baterako zerga ordainketa aukeratu badute, zerga horren, ondarearen gaineko zergaren eta zerga

honen baterako kuota osoen muga kalkulatzeko, kide horiek azken bi zerga horietan sortutako kuota osoak metatuko dira. Murrizketa aplikatu behar bada, zenbatekoa zergadunen artean hainbanatuko da, zerga honetan bakoitzari dagokion kuota osoaren proportzioan, aurreko apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

**Hiru.** Artikulu honetan ezarritako kalkulua egiteko, zergadunaren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren oinarriari gehitu behar zaizkio jabetza soila daukan ondasunek sortutako etekinak, baldin eta gozamina:

a) **(1)** Zergadunak ezkontideari, izatezko bikotekideari, aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduako albo ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratxiki badio, edo Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikulua arabera lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati.

b) Zergadunak hirugarren bati eskualdatu badio zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan.

Kasu batean zein bestean, aurkakorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela-eta zenbatu beharreko balioaren ehuneko 5, foru arau honen 10-24. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Gainera, zergadunaren ondarean sartuko dira fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren sortzapenaren aurreko bost urteetan kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, kasu honetan izan ezik: dohaintza emaileari ondarearen gaineko zergaren ordainketan ondasunen balioaren besteko zenbatekoa kargatu zaiola frogatuz gero. Arau hori ez zaie aplikatuko irabazteko asmorik gabeko elkarteen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 19. artikuluan aipatzen diren entitateen esku kostu gabe jarritako ondasunei.

### **32. artikulua. Atzerrian ordaindutako zergak**

Zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonala dagoen kasuetan, eta nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga honetan aplikatzekoa izango da atzerrian ordaindutako zergengatik aurreikusten den kenkaria, Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **33. artikulua. Ondarearen gaineko zergarengatik ordaindutako kuota**

Aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik kalkulatu zerkota zerga kuotatik zergadunak benetan ordaindutako zergaldi bereko ondarearen gaineko zergaren kuota kendu ahal izango du, eta ez da bidezkoa izango, hala badagokio, emaitza negatiboa itzultzea.

### **34. artikulua. Ondare erantzukizuna**

Zerga honen ondoriozko zerga zorrak eta, hala badagokio, zehapenak Kode Zibilaren 1.365. artikuluan aipatzen diren zortzat hartuko dira, eta, ondorioz, irabazpidezko ondasunek edo irabazitako ondasunek, ondasunen foru komunikazioko araubidea bada, zuzenean erantzungo dute Foru Ogasunaren aurrean zor horiengatik, eta, hala badagokio, ezkontideetako batek hartutako zehapenengatik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, bikotekideek ezarritako ondare araubide ekonomikoari Kode Zibilaren manu hori aplikatzen bazaio.

### **35. artikulua. Autolikidazioa**

**Bat.** Zergadunak behartuta daude autolikidazioa aurkeztera eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez zehazten diren leku, modu eta epeetan. Foru agindu horrek autolikidazioak bitarteko telematikoen bidez aurkezteko kasuak eta baldintzak ezarri ahalko ditu.

**Bi.** Zergadunek autolikidazioetan jasotako eta euren eragiten dieten datu guztiak osatu beharko dituzte, eta finkatzen diren dokumentu eta frogagiriak erantsi.

**Hiru.** Zerga zorrak eta, hala dagokionean, zehapenak ordaintzeko ondasunak edo eskubideak eman ahal izango dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 59. artikuluan ezarri den bezala.

### **36. artikulua. Autolikidazioa aurkeztera behartutako zergadunak**

Zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu beharko dute baldin eta zerga kuota, zergaren arauei jarraituz zehaztua eta bidezko kenkariak edo hobariak behin aplikatuta, ordaintzekoa bada.

### **37. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak**

Zerga honi dagozkion arau hausteak Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak IV. tituluan xedatutakoarekin bat etorritz kalifikatu eta zehatuko dira.

### **38. artikulua. Jurisdikzio ordena**

Bide ekonomiko-administratiboa agortu ondoren, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da foru arau honetan aipatzen diren gaietako edozein dela eta Administrazioaren eta zergadunen artean gerta daitezkeen egitezko eta zuzenbidezko eztabaidak ebazteko jurisdikzio eskudun bakarra.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehenengoa. 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen arabera errentan emandako higiezinaren balorazioa.**

1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako kontratuen ondorioz errentan emandako higiezinaren balioa zehazteko, sortutako errentaren ehuneko 4ko kapitalizazioa egingo da, baldin eta horrela kalkulaturako balioa txikiagoa bada foru arau honetan ondasun higiezinak baloratzeko ezarritako arauak aplikatuz ateratzen dena baino.

### **Bigarrena. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten jaraunspenen zerga araubidea.**

1. Xedapen gehigarri honek, foru arau honetako artikuluetan jasotako berezitasunekin batera, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergan zergak ordaintzeko araubidea arautzen du, testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten jaraunspenei dagokienez.

Aurreko paragrafoan aipatutako manuak aplikatuz, zerga hau ordainaraztea Arabako Foru Aldundiari dagokio, baldin eta jaraunspenaren kausatzaileak heriotzaren unean ohiko bizilekua Araban izan badu.

2. Foru arau honen manuak aplikagarri izango zaizkio testamendu ahalorde bat edo gozamen ahaldun bat (Foru Arau honen 8. artikulua arabera aplikatzekoa den Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 9. artikulua bi apartatua aipatutakoa) erabiltzeke duten jaraunspenen ondare garbiari, betiere xedapen honen hurrengo apartatuetan jasotako berezitasunei jarraikiz.

3. Testamentu ahalordea edo gozamina ahalduna erabili gabe duen jaraunspenak zerga ordaindu beharko du eta foru arau honetan ezartzen diren gainerako betebeharrak bete beharko ditu.

4. Betebehar pertsonalagatik zergaren mende dauden zergadunen kasuan, zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoekin batera, ezingo da izan pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenari dagokionaren ehuneko 60 baino handiagoa. Hori dela eta:

a) Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren kuota osoaren zati bat ez da kontuan hartuko, hain zuzen ere izaera edo destinoa dela eta Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak kargatzen dituen etekinak sortu ezin dituzten ondare elementuei dagokien zenbatekoa.

b) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zerga oinarriari batu behar zaio Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarriaren 1. apartatua aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa.

c) Hiru zergen kuoten baturak goian ezarri den muga gainditzen badu, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren kuota murriztu egingo da, harik eta ezarri den mugara ekarri arte, baina murrizketa ezin da inola ere ehuneko 80 baino handiagoa izan.

Apartatu honetan ezarritako kalkulua egiteko, testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen jaraunspenari dagokion pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren oinarriari gehitu beharko zaio jabetza soila daukan ondasunek sortutako etekinak, baldin eta gozamina:

a) Kausatzaileak edo komisarioak ezkontideari, izatezko bikotekideari, aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduko albo ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratziki badio, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikulua arabera lotuta dagoen pertsona edo erakunde bati.

b) Kausatzaileak hirugarren bati eskualdatu badio fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga sortu aurretiko bost urteko epean.

Kasu batean zein bestean, aurkakorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela-eta zenbatu beharreko balioaren ehuneko 5, foru arau honen 10-24. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

Halaber, testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen jaraunspenaren ondarean zenbatuko dira kausatzaileak kosturik gabe eskualdatutako ondasunak, betiere fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga sortu aurretiko bost urteetan, baldin eta egiaztatzen ez bada dohaintzahartzaileak horien balio parekidea duen zenbateko baten truke tributatzen duela ondarearen gaineko zergan. Arau hori ez zaie aplikatuko irabazteko asmorik gabeko elkarteen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 19. artikuluan aipatzen diren entitateen esku kostu gabe jarritako ondasunei.

5. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen jaraunspenaren betebeharrak formal eta materialak jaraunspenaren administratzaileak edo gozamenaren ahaldunak bete beharko ditu, hurrenez hurren.

6. Fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga ordaintzeko ardura izango du, ordezkotzailea, administratzaileak, testamentu ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenaren, edo gozamenaren ahaldunak, gozamen ahalduna erabiltzearen zain daudenetan.

7. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duen jaraunspena osatzen duten ondasunak eta eskubideak fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren ordaintzari lotuta geratuko dira, haien jabea edonor izanda ere, salbu eta erregistroko fedepublikoak babestutako hirugarren bat bada edo justifikatzen bada ondasunak eta eskubideak fedepublikoak eta bidezko tituluz eskuratu direla, merkataritza edo industria establezimendu batean, inskribatu ezin diren ondasun higigarriak direnean.

#### **Hirugarrena. [2](#) Izatezko bikoteak.**

Foru arau honetan ezkontideez ezartzen diren xedapenak (bai eskubideei buruzkoak, bai betebeharrari buruzkoak) izatezko bikoteetako kideei ere aplikatuko zaizkie, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan edo Estatu Espainoleko beste administrazio publiko bateko, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko herrialde bateko edo beste herrialde bateko antzeko erregistro batean inskribatuta dauden bikoteetako kideei.

Foru arau honetan izatezko bikoteak aipatzen direnean, testua aurreko paragrafoan adierazitako izatezko bikoteez ari dela ulertu behar da.

#### **Laugarrena. Ondarearen gaineko zergari buruzko arautegiaren osagarritasuna.**

Foru arau honetan xedatzen ez den guztian, modu osagarrian, Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Araua aplikatuko da, bai eta hura garatzeko emandako erregelamenduzko xedapenak ere.

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga sortzen den zergaldiei aplikatuko zaie, Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa kontuan hartuta.

## **Bigarrena. Gaitzea.**

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

### **OHARRAK**

- (1) 49/2024 Foru Araua, abenduaren 20koa.  
(ALHAO, 147.zk, 24-12-30ekoa).
- (2) 21/2025 Foru Araua, abenduaren 19koa.  
(ALHAO, 147.zk, 25-12-29koa).